## 2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA
## PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

### 2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspeagiarekin
### Presupuestos con Enfoque de Género

# AURREKONTUAK ETA GENEROA
# PRESUPUESTOS Y GÉNERO

## I. TXOSTENAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Honako txosten hau indarrean den arau-esparruan eta erreferentziazko esparruan xedatutakoa betez gauzatu da. Hala, lehenik eta behin eta esparru orokor bat izatearren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aipatu behar da, zeinak xedapen orokorrei buruzko bere 18. artikuluan ezartzen baitu arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, herri-agintariek era aktiboan izan behar dutela kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.

Era berean, Bilboko Udalaren andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako Ordenantzak bere 16. artikuluko 2. puntuan, aurrekontu-plangintza eta aurrekontu-kudeaketa arautzeari buruzkoan, zera xedatzen du, txostena egingo dela urtero, udal aurrekontu-programek emakumeen eta gizonen egoeretan izan lezaketen inpaktua aztertzeko.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea Berdintasunerako V. Udal Plana sortu dela. Plan horrek genero-zeharkakotasuna bizitza arlo guztietan eta udal arlo guztietan bultzatzeko tresnak ematen ditu zuzenean.

Testuinguru honetan, indarrean dagoen araudia betez, Genero Inpaktuari buruzko Txostena –2021eko udal aurrekontuak generoan izan dezakeen inpaktua aztertu eta ebaluatuko duena– gehitzeko beharra ezartzen da, Bilboko Udalak 2021eko Aurrekontuen Aurreproiektua egiteko udal arau teknikoetan jasotako norabideei jarraikiz.

## II. SARRERA

Genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzea, berdintasuna sustatzeko tresna gisa, Emakumeari buruzko Munduko Laugarren Konferentziak ekarri zuen berekin (Beijing, 1995), gobernuak eta gainerako eragileak genero-ikuspegia politika eta programa guztietan aplikatzera gonbidatu zituenean, erabakiak hartu aurretik politika eta programa horiek emakumeengan eta gizonengan izan ditzaketen ondorioak aztertze aldera. Testuinguru horretan, argi eta garbi adierazten da genero-ikuspegia gobernuaren aurrekontuetan txertatzeko beharra, eta baita horiek emakumeen eta gizonenengan duten inpaktua aztertzeko beharra ere.

Ikuspegi hori lagungarria izan zen aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan askotan izaten dituzten inpaktu desberdinez jabetzeko, emakumeek historian zehar pairatu zuten diskriminazioa gainditzeko neurriak ezartzeko, baita ikuspegi hori generoen arteko harreman berriak –demokratikoagoak eta berdintasunezkoagoak– bultzatzeko tresna gisa finkatzeko ere.

Bilboko Udalak, 2007. urtetik aurrera, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko hartutako konpromisoa betez, urtero egiten du udal

## I. OBJETO Y ALCANCE DEL INFORME

El presente informe se realiza en cumplimiento de lo establecido en el marco normativo y de referencia vigente. Así, y en primer lugar y como marco general es necesario señalar la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres, que determina en su artículo 18 de disposiciones generales que los poderes públicos han de tener en cuenta de manera activa el objetivo de igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas, así como de los planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas de los programas subvencionables y de los actos administrativos.

A su vez, la Ordenanza del Ayuntamiento de Bilbao para la igualdad de mujeres y hombres establece en el punto 2 de su artículo 16, de Planificación y gestión presupuestaria que se elaborará anualmente un informe donde se recoja el impacto potencial en las situaciones de mujeres y hombres de los programas presupuestarios municipales.

Por otro lado, es importante resaltar la existencia del V Plan municipal para la igualdad que de forma directa dota de instrumentos para la impulsar la transversalidad de género en todos los ámbitos de la vida y por todas las áreas municipales.

En este contexto se determina a necesidad de incluir un Informe de Impacto de Género que analice y evalúe el impacto en género del presupuesto municipal del 2021, siguiendo las directrices marcadas en las Normas Técnicas municipales para la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos 2021 del Ayuntamiento de Bilbao.

## II. INTRODUCCION

La introducción de la perspectiva de género en los presupuestos públicos como herramienta para favorecer la igualdad, aparece implícita en la Cuarta Conferencia Mundial sobre la mujer (Beijing, 1995), cuando se invitaba a los gobiernos y demás agentes a integrar la perspectiva de género en todas las políticas y los programas para analizar sus consecuencias para las mujeres y los hombres respectivamente, antes de tomar decisiones. En este contexto, se hace referencia expresa a la necesidad de integrar el enfoque de género en los presupuestos gubernamentales, así como analizar el impacto de los mismos en mujeres y hombres.

Esta perspectiva ayudó a ser conscientes de los impactos diferenciados que frecuentemente tienen los presupuestos sobre mujeres y hombres, a incorporar medidas tendentes a superar la discriminación sufrida históricamente por las mujeres así como a consolidar este enfoque como un instrumento de potenciación de nuevas relaciones entre los géneros, más democráticas e igualitarias.

El Ayuntamiento de Bilbao desde el año 2007 y en cumplimiento del compromiso municipal para avanzar por la igualdad de mujeres y hombres, elabora anualmente un

aurrekontuei eta genero-inpaktuari buruzko txostena. Ogasunaren saila (Aurrekontuen Zuzendaritza) eta Berdintasunaren saila –biak batera– dira ekimen horren buru, Talde Eragile gisa, eta udal aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuaren jarraipenaz, aholkularitzaz, koordinazioaz eta kontrolaz arduratzen dira; horrez gain, aurrekontuari erantsi beharreko genero-inpaktuari buruzko txostena egiten dute.

**Aurrerapausoak Bilboko Udalaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan.**

2007. urtetik egundaino, **genero-inpaktuari buruzko 13 txosten** argitaratu dira; txosten horiek genero-zeharkakotasuna udal plangintza politiko-ekonomikoan aplikatzeko garatutako prozesuak dokumentatzen dituzte.

Talde Eragileak, Aurrekontuetako Zuzendaritzetako eta Berdintasunaren Saileko teknikariez eta politikariez osatuta dagoenak, ekimen hori bultzaearen lidergoa izaten jarraitzen du. Aurrekontuen eta Berdintasunaren zuzendaritzetako teknikariek eta politika arloko langileek osatzen dute lantaldea. Talde Eragileak genero-ikuspegia aurrekontuak egiteko teknikaren hainbat alderditan eta idazteko irizpide formaletan txertatzeko gidalerroak diseinatzen ditu; horrez gain, organo kudeatzaileak gaitzen ditu, txertatu beharreko oinarrizko elementuei buruzko informazioa ematen die eta Udal Aurrekontuaren Genero Inpaktuari buruzko Txostena egiten du.

Halaber, genero-ikuspegia udal aurrekontuak egin, bete eta ebaluatzeko prozesu osoan txertatzeko dinamika mantendu eta indartu egin da. Ondorioz, 2021eko Aurrekontuaren Proiekturako Arau Teknikoetan jaso dira, batetik, genero-ikuspegia programetan txertatzeko, eta bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal planean –indarrean dagoen horretan– ezarritako helburuen artean behar bezala sailkatuta jasotzeko eman beharreko urratsak.

Aurrekontuak egiteko epea hasi aurretik harreman zuzenetan eta komunikaturik egon da udal sailekin, programen eta proiektuen deskribapen kualitatiboa lantzeko xedez. Informazio hori, hein batean, txosten honetan gehitu da, proiektu desberdinen adibideak ematerakoan. Bilera horiek burutu ostean, generoari buruko txostena egiteko funtsezko baldintza den metodologiaren arabera sailkatu dira udal programak.

Jarraitzen da sexuaren arabera banaturiko datuak aurrekontuen memorietan txertatzen, eta horrela, aukera ematen da jarduketen, programen eta genero-arrakalak ezabatzean izaten duten eraginaren jarraipena egiteko.

## III. AZTERKETA-EREMUAK GENERO-INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENEAN

Genero-inpaktuari buruzko txostenak hainbat aldagai hartzen ditu aintzat, Bilboko Udalaren 2021eko Aurrekontuen Aurreproiektuko edukiak ezaugarritzeko eta aztertzeko.

Aipatu behar da jarraian deskribatuko diren azterketa-aldagaiak azterlanean bi mailatan erabili direla:

Informe de Impacto de Genero de los presupuestos municipales. Esta iniciativa se lidera conjuntamente por las áreas de Hacienda (Dirección de Presupuestos) y de Igualdad de mujeres y hombres quienes, como Equipo Motor, realizan el seguimiento, asesoramiento, coordinación y control al proceso de integración de la perspectiva de género en la presupuestación municipal, así como el de elaborar el pertinente informe de impacto de género que debe acompañar al presupuesto.

**Avances en el proceso de integración del enfoque de género en los presupuestos municipales del Ayuntamiento de Bilbao.**

**Desde el año 2007 hasta la actualidad se han publicado 13 informes de impacto de género** en los que se documentan los procesos que se han desarrollado para aplicar la transversalidad de género en la planificación político-económica municipal.

Se ha mantenido el liderazgo del Equipo Motor, compuesto por personal técnico y político de las Direcciones de Presupuestos y del Área de Igualdad para el impulso de esta iniciativa. El Equipo Motor diseña las directrices para la integración de la perspectiva de género tanto en los aspectos de técnica presupuestaria, como los meramente formales de su redacción e informa y capacita a los órganos gestores sobre los elementos básicos a incorporar y elabora el Informe de Impacto de Género del Presupuesto Municipal.

Igualmente, se ha mantenido y reforzado la dinámica de integración de la perspectiva de género en todo el proceso de elaboración, ejecución y evaluación de los presupuestos municipales. De este modo, están incluidos dentro de las Normas Técnicas del proyecto del Presupuesto 2021 los pasos a dar tanto para la integrar la perspectiva de género en los programas como su pertinente clasificación dentro de los objetivos establecidos en el vigente plan municipal para la igualdad de mujeres y hombres.

Previo al plazo de elaboración de los presupuestos, se ha mantenido relación y comunicación directa con las áreas municipales al objeto de trabajar sobre la descripción cualitativa de los programas y proyectos, información que en parte, y a modo de ejemplos de distintos proyectos, ha sido volcada en este informe. Una vez desarrolladas estas reuniones, se han clasificado los programas municipales en base a la metodología diseñada, requisito fundamental para la elaboración del informe de impacto de género.

Se continúa con la incorporación de datos desagregados por sexo en las memorias presupuestarias, posibilitando así realizar un seguimiento de las actuaciones y programas y su incidencia en la eliminación de las brechas de género.

## III. ÁMBITOS DE ANÁLISIS EN EL INFORME DE IMPACTO DE GÉNERO

El informe de impacto de género atiende a una serie de variables para caracterizar y analizar los contenidos del Anteproyecto de Presupuestos 2021 del Ayuntamiento de Bilbao.

Es necesario señalar que las variables de análisis que se van a describir a continuación se han utilizado en el análisis a dos niveles:

Batetik, azterlan orokorrean, genero-ikuspegia duten proiektu guztiak (445) aurrekontuko ahalmenen eta zenbatekoaren arabera aztertu dira; horrez gain –eranskinetan– proiektuak arloka deskribatu dira, aurrekontuko ahalmenen eta zenbatekoen arabera.

Bestetik, sakonki aztertu dira hautatutako 55 programak eta haietan jasotako 242 proiektuak (proiektu guztien % 37). Programa horiei dagokienez, honako azterketa-aldagai hauek hartu dira kontuan: funtzioen araberako kategorizazioa; talde hartzaileak; zeharkako neurriak; garrantzi maila, generoa eta norabidea kontuan hartuta.

Jarraian, azterketaren arloak eta aldagaiak deskribatuko dira zehatz-mehatz:

**Ahalmenak**

Proiektuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Planean zehaztutako lau ahalmenetako batekin duten lotura aintzat hartuta aztertzen dira. Ahalmenak honako hauek dira, jakiteko:

**Ordezkaritza sozial eta politikoa:**
- Emakumeen ordezkaritza elkarte eta erakundeetan.
- Emakumeen ordezkaritza erabakiak hartzeko udal eremuetan.
- Emakumeen herritartasun aktiboa udal programetan.
- Genero ikuspegia txertatzea udal programetan.

**Autonomia ekonomikoa:**
- Laneratzea sustatzera bideratutako udal programak.
- Gizarte larrialdietara bideratutako udal programak.
- Udal kontratazioa zerbitzuak ematen dituzten enpresen bidez.
- Udal dirulaguntzak eta bestelako laguntzak ematea.
- Etxebizitza lortzeko erraztasunak ematea.

**Kontziliazioa eta erantzukidetasuna:**
- Kontziliazioa bideratzeko udal zerbitzu eta ekipamenduak.
- Mugikortasuna eta gertutasun ekipamenduak.
- Kontziliaziorako zerbitzuak dituzten programak.

**Emakumeen segurtasuna:**
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera bideratutako udal zerbitzuak.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko udal programak.
- Emakumeen osasuna eta integritate fisikoa.
- Osasunaren sustapena eta zaintza.
- Gizarte larrialdiei arreta emateko udal zerbitzuak.

**Aurrekontuen zenbatekoa**

Aurrekontuari lotutako zenbateko ekonomikoa.

**Sailkapen funtzionala**

Proiektuek zer motatako oinarrizko beharrak bete nahi dituzten aztertzea da helburua, toki-erakundeen aurrekontuen egitura onartzen duen abenduaren 3ko EHA/3565/2008 Aginduan definitutako gastu arloen araberako sailkapenarekin bat.

**Oinarrizko zerbitzu publikoak**
- Segurtasuna, mugikortasuna, etxebizitzak, hirigintza, argiteria publikoa, hiri-ekipamenduak.

Uno de tipo global, que ha analizado la totalidad de los proyectos con enfoque de género (445) según capacidades y según importe presupuestario, así como –en anexos- descripción de la totalidad de los proyectos por áreas según capacidad e importes presupuestarios.

Uno centrado en el análisis de profundidad de los 55 programas seleccionados y de los 242 proyectos contenidos en los mismos (que suponen el 37% del total de proyectos). Respecto a estos programas, se han considerado como variables de análisis las siguientes: categorización por funciones; colectivos destinatarios; medidas transversales, grado de relevancia con relación al género y orientación.

A continuación, la descripción detallada de los ámbitos y variables de análisis:

**Capacidades**

Los Proyectos se analizan con relación a su asociación con alguna de las cuatro capacidades definidas en el IV Plan Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Las capacidades, a saber son:

**Representación social-política:**
- Representación de las mujeres en asociaciones y entidades.
- Representación de las mujeres en los espacios de decisión de ámbito municipal.
- Ciudadanía activa de las mujeres en programas municipales
- Integración de la perspectiva de género en los programas municipales.

**Autonomía económica:**
- Programas municipales dirigidos a fomentar el acceso al mercado laboral
- Programas municipales dirigidos a emergencias sociales.
- Contratación municipal a través de empresas prestadoras de servicios.
- Concesión de ayudas y subvenciones municipales
- Facilitar el acceso a la vivienda

**Conciliación y corresponsabilidad:**
- Servicios y equipamientos municipales que favorecen la conciliación
- Movilidad y equipamientos de proximidad.
- Programas que cuentan con servicios para la conciliación

**Seguridad de las mujeres:**
- Servicios municipales dirigidos a erradicar la violencia contra las mujeres
- Programas municipales dirigidos a prevenir la violencia contra las mujeres.
- Integridad corporal y salud de las mujeres.
- Promoción y cuidado de la salud
- Servicios municipales de atención a urgencias sociales

**Importe presupuestario**

El importe económico asociado al presupuesto.

**Clasificación funcional**

Este análisis se orienta a analizar qué tipos de necesidades básicas se dirigen a satisfacer los proyectos, de acuerdo a la clasificación según área de gasto definidas en la Orden EHA/3565/2008, de 3 de diciembre, por la que se aprueba la estructura de los presupuestos de las entidades locales

**Servicios públicos básicos**
- Seguridad, movilidad, vivienda, urbanismo, alumbrado público, equipamientos urbanos

| | |
|---|---|
| **Gizarte sustapena eta babesa**<br>- Familia eta haurrak, adinekoak, berdintasuna, integrazio komunitarioa eta gizarte larrialdia, genero-indarkeriaren prebentzioa eta arreta, nazioarteko kooperazioa.<br><br>**Lehentasunezko izaera duten ogasun publikoak**<br>- Osasuna, hezkuntza, kultura, kirola.<br>**Izaera ekonomikoko jarduketak**<br>- Sustapen komertziala eta ekintzailetza, garraio publikoa, ikerketa, garapena eta berrikuntza, kontsumitzaileen babesa.<br>**Izaera orokorreko jarduketak**<br>- Komunikabideak, langileen prestakuntza, erakunde harremanak, gobernu-organoak.<br><br>**Programaren hartzaile diren taldeak**<br><br>- Herritar guztiei zuzendutako programak<br>- Emakumeei edo batez ere emakumeek osatutako kolektiboei zuzendutako programak<br>- Emakume taldeei zuzendutako programak.<br><br>**Programan txertatutako zeharkako neurriak**, hau da, programetan txertatuta dauden neurriak; genero-ikuspegia programetan zenbateraino txertatu den adierazten dutela esan daiteke.<br><br>- Hizkuntza inklusiboa erabiltzea.<br>- "Sexua" aldagai gisa txertatzea.<br>- Kontratazio publikoetan berdintasun klausulak gehitzea.<br><br>- Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.<br><br>**Programaren garrantzi maila, generoari dagokionez** , programak aldagai horiek erabilita deskribatzeak genero-ikuspegia zenbateraino txertatu den adierazten duela kontuan hartuta.<br><br>- Helburu bakarra berdintasun-politikak sustatu eta kudeatzea eta emakumeen eta/edo gizonen arteko desberdintasunak ezabatzea duten programak<br>- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea helburu duten edo berdintasun hori sustatzeko neurriak helburuen artean dituzten programak<br>- Helburuen artean esplizituki aipatzen ez diren irizpide eta/edo jarduketa puntualak jasotzen dituzten programak<br><br>**Programaren norabidea**, lehentasunezko jarduketa-esparruaren arabera, honako bost mota hauek kontuan hartuta:<br><br>- Sentsibilizazioa<br>- Azterlanak<br>- Araudia<br>- Publizitatea<br>- Zerbitzuak<br><br>**Gastuen atala,** proiektuetako gastuen atalaren arabera:<br><br>- Langileen gastuak<br>- Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak<br>- Finantza-gastuak<br>- Benetako inbertsioak<br>- Transferentzia arruntak<br>- Kapital-transferentziak | **Protección y promoción social**<br>- Familia e infancia, personas mayores, igualdad, integración comunitaria y emergencia social, prevención y atención a violencia de género, cooperación internacional.<br>**Bienes públicos de carácter preferente**<br>- Sanidad, educación, cultura, deporte<br>**Actuaciones de carácter económico**<br>- Promoción comercial y emprendimiento, transporte público, investigación, desarrollo e innovación, protección de consumidores,<br>**Actuaciones de carácter general**<br>- Medios de comunicación, formación de personal, relaciones institucionales, órganos de gobierno.<br><br>**Colectivos destinatarios del programa**<br><br>- Programa que se dirigen a la ciudadanía general<br>- Programas que se dirigen a colectivos de mujeres o a sectores en los que estas son mayoría<br>- Programas que se dirigen a colectivos específicos de mujeres.<br><br>**Medidas transversales incorporadas al programa,** como medidas que están incorporadas a los programas y que pueden interpretarse como un reflejo del grado de integración general de la perspectiva de género en los mismos.<br><br>- Utilización de lenguaje inclusivo.<br>- Incorporación de la variable sexo<br>- Inclusión de cláusulas de igualdad en la contratación pública<br>- Evaluación previa de impacto de género<br><br>**Grado de relevancia con relación al género del programa,** entendiendo que la caracterización de los programas en torno a estas variables indica el grado de enfoque de los mismos respecto al género.<br><br>- Programas cuyo único objetivo es promover, gestionar políticas de igualdad y/o eliminar las desigualdades de hombres y mujeres<br>- Programas entre cuyos objetivos se incluyen explícitamente objetivos y/o medidas de promoción de la igualdad de mujeres y hombres<br>- Programas con criterios y/o actuaciones de carácter puntual que no se recogen de manera explícita entre los objetivos del programa<br><br>**Orientación del programa**, en función de su ámbito preferente de actuación, considerando los siguientes cinco tipos:<br><br>- Sensibilización<br>- Estudios<br>- Normativa<br>- Publicidad<br>- Servicios<br><br>**Capítulo de gasto,** en función del capítulo de gasto de los proyectos:<br><br>- Gastos de personal<br>- Gastos en bienes corrientes y servicios<br>- Gastos financieros<br>- Inversiones reales<br>- Transferencias corrientes<br>- Transferencias de capital |

## IV. TXOSTENAREN EGITURA

Txostenak honako atal hauek ditu:

**Emakumeen eta gizonen egoeraren ikuspegi zabala.**

2020an Bilbon emakumeek eta gizonek bizi dituzten egoerei buruz hitz egiteko aukera emango duen datuen ikuspegi panoramikoa eskaintzea da atal honen helburua. Datuen azterketaren bidez, egoera horiei buruzko begirada zehatzagoa lortzen da, emakumeen ahalduntzea aintzat hartuta, honako hauek barnean hartzen dituena: emakumeen ordezkaritza sozial eta politikoa; kontziliazioa, erantzukidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria; eta hainbat arlori buruzko azterketa (demografia, hezkuntza formala, zientzia eta ikerketa, IKTen ezagutza eta erabilera, euskara, errenta pertsonala, soldata-arrakala, prestazio sozialak, enplegua, ekintzailetza, osasuna, ordezkaritza sozial eta politikoa hainbat arlotan, kontziliazioa, denboraren erabilera, garraioa, emakumeen aurkako indarkeria, segurtasun publikoa). Horrez gain, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian zehar emakumeek eta gizonek bizitako egoerari buruzko aipamen kualitatibo bat dago.

Bilboko udalerriaren mailako daturik ez badago, geografikoki hurbilen dagoen egoerari buruzko datuak ematen dira.

**2021ko aurrekontuaren azterketa**

- Azterketa orokorra, genero-ikuspegia txertatu duten 445 gastu-proiekturen aurrekontuko ahalmenen eta zenbatekoen arabera.
- 242 proiektuak biltzen dituzten 55 programen azterketa sakona.

**1. eta 2. eranskinak**

- Proiektuen arloak, ahalmenak eta aurrekontuko zenbatekoa deskribatzea.

Hitz batez, txosten hau honako helburu hauek betetzen saiatzen da, azken urteetan planteatutako helburuekin koherentzian:

- Aurrera egitea emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko udal konpromisoa lortzeko bidean.
- Desorekak berdintzeko neurriak sustatzea.
- Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna plangintza politiko-ekonomikoan ezartzea.

## IV. ESTRUCTURA DEL INFORME

El informe se desarrolla en torno a los siguientes apartados.

**Panorámica sobre la situación de mujeres y hombres.**

El objetivo de este apartado es ofrecer una panorámica de datos que permita hablar de las situaciones de mujeres y hombres en Bilbao en 2020. A través del análisis de datos se obtiene una mirada más concreta sobre estas situaciones que abarca, atendiendo al empoderamiento de las mujeres, a la representación social y política de las mismas, a la conciliación y corresponsabilidad y a la violencia contra las mujeres, análisis sobre ámbitos como la demografía, la educación formal, la ciencia y la investigación, el conocimiento y uso de las TICs, el euskera, la renta personal, la brecha salarial, las prestaciones sociales, el empleo, el emprendimiento, la salud, la representación social y política en varios ámbitos, la conciliación, el uso del tiempo, el transporte, la violencia contra las mujeres, la seguridad pública. Se añade además una reseña de tipo cualitativo sobre la situación de mujeres y hombres durante la crisis sanitaria de la COVID-19.

En el caso de no existir datos a nivel municipal de Bilbao, se ofrecen sobre la realidad geográfica más cercana.

**Análisis de presupuesto 2021.**

- Análisis global, por capacidades e importe presupuestario de 445 proyectos de gasto con enfoque género.
- Análisis en profundidad de los 55 programas y los 242 englobados en los mismos.

**Anexos 1 y 2**

- Descripción de los proyectos por áreas, capacidades e importe presupuestario.

En definitiva, con este Informe se pretende, en coherencia con los objetivos planteados en los últimos años:

- Avanzar en el compromiso municipal con la igualdad de mujeres y hombres.
- Incentivar medidas para corregir desequilibrios.
- Implementar la transversalidad del enfoque de género en la planificación político-económica.

## V. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA

Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020 dokumentua oinarri bezala hartuta, Bilboko udalerrian 2019ko abenduaren 31n emakumeen eta gizonen artean dagoen egoera desberdinaren panoramika bat eskaintzen da, ikuspegi feministarekin, eta egoera horrek azkenaldian izan duen bilakaera erakusten da. Erradiografia hori edukitzea garrantzitsua da, bai egon daitezkeen desberdintasunak detektatzeko eta jarduteko lehentasunak ezartzeko, bai adierazleen bilakaeraren jarraipena egin ahal izateko.

Dokumentu honek, datuen azterketaren bidez, Bilboko emakumeek eta gizonek bizi dituzten dinamika ekonomiko eta sozialen eremu nagusietako egoerari buruzko ikuspegi zehatzagoa ematen du, hala nola, demografia, hezkuntza

## V. SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES

Tomando como base el documento Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020, se ofrece una panorámica de la situación diferencial entre mujeres y hombres en el municipio de Bilbao a 31 de diciembre de 2019, en los diversos ámbitos de intervención municipal, con una perspectiva feminista, y se muestra cuál ha sido la evolución reciente de dicha situación. Contar con esta radiografía es relevante tanto para detectar posibles desigualdades y establecer prioridades de actuación, como para poder realizar un seguimiento de la evolución de los indicadores.

En este apartado se presenta, a través del análisis de datos, una mirada más concreta sobre la situación en los principales ámbitos de las dinámicas económicas y sociales que viven las mujeres y hombres de Bilbao, tales como la

formala, enpleguarekiko egoera, errenta, IKTen ezagutza eta erabilera, emakumeen aurkako indarkeria, ordezkaritza orekatua eta abar. Datu gehienak kanpoko estatistika-iturriei buruzkoak dira (EIN, Eustat). Kasu horietan, Bilboko datuak azaltzen dira, halakorik izanez gero. Bilboko udal-mailako daturik ez badago, hurbilen dagoen errealitate geografikoari buruz eskaintzen dira (Bizkaia, EAE), eta analisirako hurbilketa baliozkoa izan daitekeela ulertzen da. Ahal den neurrian, alderaketak eboluzioaren ikuspuntutik ere aurkezten dira (berdintasun edo desberdintasun handiagoa lortzeko joera).

## Emakumeen eta gizonen egoera Bilbon

### Emakumeen ahalduntzea gizartean, arlo ekonomikoan eta arlo politikoan

### Demografia

Bilbon 346.000 bizilagun inguru daude, eta urtez urte pixkanaka kopurua handitu egiten da. Emakumeak % 53 inguru dira, eta gizonak % 47 inguru.

**1. Irudia.** Biztanleria sexuaren arabera Bilbon (guztira eta %)

| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonak | 167.019 | 166.887 | 166.246 | 164.941 | 163.377 | 162.564 | 162.732 | 162.571 | 162.931 | 163.563 |
| Emakumeak | 186.168 | 185.813 | 185.383 | 184.415 | 183.197 | 182.577 | 182.390 | 182.539 | 182.890 | 183.280 |
| Guztira | 353.187 | 352.700 | 351.629 | 349.356 | 346.574 | 345.141 | 345.122 | 345.110 | 345.821 | 346.843 |
| Emakumeen % | 52,7 | 52,7 | 52,7 | 52,8 | 52,9 | 52,9 | 52,8 | 52,9 | 52,9 | 52,8 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bilboko gizartea zahartzen ari da azken urteotan, jaiotza-tasa baxuak eta bizi-itxaropenaren hazkundeak eragiten dutelarik. Egoera hau Europa osora estrapola daiteke. Bilboko biztanleria-piramidea aztertuz gero, agerian geratzen da zabalagoa dela adin-tarte altuenetan oinarrian baino, hau da, adin-tarte txikienetan baino. Gainera, emakumeek biztanle gehiago biltzen dituzte 65 urtetik gorako segmentuan (Bilboko biztanleria osoaren % 18,2 emakumeak dira adin-tarte horretan; gizonen ehunekoa, berriz, % 9,5 da).

**2. Irudia.** Bilboko biztanleria-piramidea, biztanleriaren ehunekoa adinaren eta sexuaren arabera, 2019 (%)




*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

demografía, la educación formal, la situación respecto al empleo, la renta, el conocimiento y uso de las TICs, la violencia contra las mujeres, la representación equilibrada, etc. La mayor parte de los datos hace referencia a fuentes estadísticas externas (INE, Eustat). En estos casos, se exponen los datos de Bilbao, si se dispone de los mismos. En el caso de no existir datos a nivel municipal de Bilbao, se ofrecen sobre la realidad geográfica más cercana (Bizkaia, C.A. Euskadi), entendiéndose que pueden suponer una aproximación válida para el análisis. En la medida de lo posible, las comparaciones se presentan también desde un punto de vista evolutivo (tendencia hacia una mayor igualdad o desigualdad).

## Situación y posición de las mujeres y los hombres en Bilbao

### Empoderamiento social, económico y político de las mujeres

### Demografía

Bilbao cuenta con una población superior a las 346.000 personas y crece ligeramente respecto a años anteriores. El porcentaje de mujeres y hombres se mantiene en torno al 53% - 47%, respectivamente.

**Figura 1.** Población en Bilbao por sexo (total y %)

| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hombres | 167.019 | 166.887 | 166.246 | 164.941 | 163.377 | 162.564 | 162.732 | 162.571 | 162.931 | 163.563 |
| Mujeres | 186.168 | 185.813 | 185.383 | 184.415 | 183.197 | 182.577 | 182.390 | 182.539 | 182.890 | 183.280 |
| Total | 353.187 | 352.700 | 351.629 | 349.356 | 346.574 | 345.141 | 345.122 | 345.110 | 345.821 | 346.843 |
| % Mujeres | 52,7 | 52,7 | 52,7 | 52,8 | 52,9 | 52,9 | 52,8 | 52,9 | 52,9 | 52,8 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

La sociedad bilbaína está experimentando un envejecimiento progresivo en los últimos años, al que contribuyen la baja tasa de natalidad y el aumento de la esperanza de vida. Esta situación es extrapolable al conjunto de Europa. Si se observa la pirámide poblacional de Bilbao, se evidencia que es más ancha en los tramos de mayor edad que en su base, constituida por los tramos de menor edad. Además, las mujeres concentran mayor población en el segmento de más de +65 años (el 18,2% de la población total de Bilbao son mujeres en esta franja de edad, mientras que el porcentaje de hombres asciende al 9,5%).

**Figura 2.** Pirámide poblacional de Bilbao porcentaje de población por edad y sexo, 2019 (en %)



*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

Emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino 5,7 urte handiagoa da.

**3. Irudia.** Bizi-itxaropenaren bilakaera (urteak) jaiotzean, sexuaren arabera. EAE 2005-2017

| URTEA | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK | Desb. E-G |
|---|---|---|---|---|
| 2005 | 80,9 | 84,6 | 77,2 | 7,4 |
| 2006 | 81,5 | 85 | 77,9 | 7,1 |
| 2007 | 81,4 | 84,7 | 77,9 | 6,8 |
| 2008 | 81,8 | 85,1 | 78,4 | 6,7 |
| 2009 | 82 | 85,3 | 78,6 | 6,7 |
| 2010 | 82,5 | 85,6 | 79,2 | 6,4 |
| 2011 | 82,5 | 85,6 | 79,2 | 6,4 |
| 2012 | 82,8 | 85,9 | 79,6 | 6,3 |
| 2013 | 83,2 | 86,3 | 79,9 | 6,4 |
| 2014 | 83,4 | 86,2 | 80,4 | 5,8 |
| 2015 | 83,1 | 86 | 80,2 | 5,8 |
| 2016 | 83,2 | 85,9 | 80,4 | 5,5 |
| 2017 | 83,5 | 86,3 | 80,6 | 5,7 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bilboko jaiotza-tasa gordina 6,30 jaiotzakoa da mila biztanleko. Beste muturrean, heriotza-tasa gordina 11,30 heriotzakoa da mila biztanleko.

**4. Irudia.** Bilboko adierazle sozioekonomikoak (2018-2019)

| | 2018 | 2019 | DESB. 2018/2019 |
|---|---|---|---|
| Jaiotza-tasa gordina (‰ bizt.) | 6,70 | 6,30 | -0,40 |
| Heriotza-tasa gordina (‰ bizt.) | 11 | 11,30 | 0,30 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bizi-itxaropenaren igoera amatasunaren batez besteko adinari ere eragiten ari zaio; izan ere, 2018an 33,12 urtekoa zen Bizkaian, eta horrek erakusten du amatasunaren batez besteko adinak gora egin duela XXI. mendearen hasieratik. Gainera, 1975etik 4,39 urte igo da batez beste Bizkaian.

**5. Irudia**. Amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera (urteak) EAE – Bizkaia 1975-2018



*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bilboko biztanleriaren % 8,6 jatorri atzerritarrekoa da, horietatik % 50 emakumeak eta beste % 50 gizonak direlarik. Bilbon, atzerriko jatorriko biztanleen kopurua apur bat igo da azken urteotan, % 0,4 2010 eta 2019 bitartean. Ez dago alderik atzerritarren artean sexuari dagokionez, Bilbon ia gizon eta emakume atzerritar kopuru bera baitago.

La esperanza de vida de las mujeres es 5,7 años mayor que la de los hombres.

**Figura 3.** Evolución esperanza de vida (años) al nacimiento por sexo. CAE 2005-2017

| AÑO | TOTAL | MUJERES | HOMBRES | Dif. H-M |
|---|---|---|---|---|
| 2005 | 80,9 | 84,6 | 77,2 | 7,4 |
| 2006 | 81,5 | 85 | 77,9 | 7,1 |
| 2007 | 81,4 | 84,7 | 77,9 | 6,8 |
| 2008 | 81,8 | 85,1 | 78,4 | 6,7 |
| 2009 | 82 | 85,3 | 78,6 | 6,7 |
| 2010 | 82,5 | 85,6 | 79,2 | 6,4 |
| 2011 | 82,5 | 85,6 | 79,2 | 6,4 |
| 2012 | 82,8 | 85,9 | 79,6 | 6,3 |
| 2013 | 83,2 | 86,3 | 79,9 | 6,4 |
| 2014 | 83,4 | 86,2 | 80,4 | 5,8 |
| 2015 | 83,1 | 86 | 80,2 | 5,8 |
| 2016 | 83,2 | 85,9 | 80,4 | 5,5 |
| 2017 | 83,5 | 86,3 | 80,6 | 5,7 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

La tasa bruta de natalidad de Bilbao es de 6,30 nacimientos por cada mil habitantes. En el otro extremo, la tasa bruta de mortalidad es de 11,30 fallecimientos por cada mil habitantes.

**Figura 4.** Indicadores demográficos de Bilbao (2018-2019)

| | 2018 | 2019 | DIF. 2018/2019 |
|---|---|---|---|
| Tasa bruta de natalidad (‰ habitantes) | 6,70 | 6,30 | -0,40 |
| Tasa bruta de mortalidad (‰ habitantes) | 11 | 11,30 | 0,30 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

El aumento de la esperanza de vida también está afectando a la edad media de la maternidad, que se sitúa en 33,12 años en Bizkaia en el año 2018, lo que refleja la tendencia ascendente desde comienzos del siglo XXI de la edad media de la maternidad, que ha crecido 4,39 años de media desde 1975 en Bizkaia.

**Figura 5.** Evolución de la edad media (años) de la maternidad CAE – Bizkaia 1975-2018



*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

El 8,6% de la población bilbaína es de origen extranjero, de la que el 50% son mujeres y el otro 50% hombres. La población de origen extranjero en Bilbao ha aumentado ligeramente en los últimos años, creciendo un 0,4% entre 2010 y 2019. No se aprecian diferencias en la población extranjera en cuanto al sexo, habiendo prácticamente igual número de hombres que de mujeres de origen extranjero en Bilbao.

**6. Irudia.** Bilboko atzerritar jatorriko biztanleria, sexuaren arabera

| | Biztanleria guztira | Atzerriko jatorriko biztanleen % | Atzerritarrak guztira | Atzerritarrak: Gizonak | Gizonezko atzerritarren % | Atzerritarrak: Emakumeak | Emakumezko atzerritarren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 346.843 | %8,6 | 29.815 | 14.908 | 50,0% | 14.907 | %50 |
| 2010 | 353.187 | %8,2 | 28.865 | 14.482 | 50,2% | 14.383 | %49,8 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Migrazio-saldoak migrazioagatiko sarreren eta arrazoi beragatik egindako irteeren arteko aldea adierazten du; ondorioz, horren zeinu positiboak edo negatiboak adierazten du sarrerek irteerak gainditzen dituztela edo alderantziz. Migrazio-saldo positiboaren joerak bere horretan jarraitzen du 2014tik, eta, oro har, emakumeena handiagoa da 2018ra iritsi arte, orduan, saldoa ia berdina baita emakume eta gizonen artean.

**7. Irudia.** Bilboko migrazio-saldoa. 2010-2018 bilakaera (Immigrante-kopurua – Emigrante-kopurua)




*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

### Hezkuntza formala

Heziketa mailari dagokionez, hainbat alorretan ezberdintasun nabariak daude emakumeen eta gizonen artean. Ez dago datu guztiei buruzko kopururik, baina hala ere, Bilboko alfabetatu gabeko pertsona guztien artean % 74 emakumeak dira eta % 26 gizonak. Ikasketarik egin ez dutenen artean emakumeak % 62 dira eta gizonak % 38. Ezberdintasunak daude baita ere ikasketa profesionalak egin dituztenen artean, emakumeak % 43 direlarik eta gizonak % 57. Lehen Hezkuntzako eta goi mailako ikasketak egin dituztenen arteko zifrak proportzionalagoak dira, eta erdi mailako eta goi mailako ikasketak egin dituztenen artean emakumeak % 62 dira eta gizonak % 38.

**8. Irudia.** Bilbo Handiko 10 urteko eta gehiagoko biztanleria, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera, 2018 (%)




*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bizkaian 2018/2019 ikasturterako egin ziren matrikulen artean emakume gehiago matrikulatu ziren unibertsitatean (% 54 hain zuzen ere) gizonak baino, eta erdi mailako Lanbide Heziketan (% 34) eta goi mailakoan (% 36) emakumeak gutxiengoa izan ziren. Unibertsitateko ikasketei dagokienez, historikoki haiekin lotu izan diren karreretan emakumeen presentzia handiena duten graduak hautematen

**Figura 6.** Población de origen extranjero en Bilbao por sexo

| | Total población | % Población de origen extranjero | Población extranjera total | Población extranjera: Hombres | %Hombres extranjeros | Población extranjera: Mujeres | % Mujeres extranjeras |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 346.843 | 8,6% | 29.815 | 14.908 | 50,0% | 14.907 | 50,0% |
| 2010 | 353.187 | 8,2% | 28.865 | 14.482 | 50,2% | 14.383 | 49,8% |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

El saldo migratorio supone la diferencia entre las entradas por migración y las salidas por el mismo motivo; en consecuencia, el signo positivo o negativo del mismo indica que las entradas superan las salidas o viceversa. La tendencia del saldo migratorio positivo se mantiene desde 2014, siendo en general el de mujeres superior, hasta llegar al 2018, cuando el saldo es prácticamente el mismo para mujeres y hombres.

**Figura 7.** Saldo migratorio de Bilbao. Evolución 2010-2018 (nº de migrantes – nº de emigrantes)




*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

### Educación formal

En lo que respecta a la educación, se observa la existencia de brechas significativas en varios niveles. Si bien no muy numerosas en términos absolutos, del total de personas sin alfabetizar del Gran Bilbao el 74% son mujeres y el 26% hombres. Entre las personas sin estudios las mujeres representan el 62% y los hombres el 38%. Se observa también diferencia en el nivel de estudios profesionales, donde las mujeres representan el 43% y los hombres el 57%. Las cifras se mantienen más proporcionadas en los niveles de estudios primarios y superiores, mientras que esta diferencia se invierte en los estudios medios-superiores, donde las mujeres suponen el 62% frente al 38% de los hombres.

**Figura 8.** Población de 10 y más años de la Comarca del Gran Bilbao, según nivel de instrucción y según sexo 2018 (en %)




*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

En lo que respecta a las matriculas realizadas para el curso 2018/2019 en Bizkaia, las mujeres tienen más presencia en las universidades (constituyen el 54%), siendo minoría en las FP de Grado Medio (34%) y Superior (36%). Respecto a los estudios universitarios, se aprecian grados con presencia mayoritaria de mujeres en carreras que históricamente se han asociado con ellas, tales como

dira, hala nola Haur Hezkuntza (ia % 90 emakumeak dira) eta Pedagogia (% 83). Beste gradu batzuetan, berriz, gizonen presentzia handiagoa da, eta itsas ingeniaritza eta informatika dira gizonen ehuneko handiena duten graduak, % 90 inguru.

**9. Irudia.** Emakumeen % 75etik gorako matrikulazioa duten graduak Bizkaian 2018/19

| | % EMAKUMEAK |
|---|---|
| Haur Hezkuntza | 88,7 |
| Pedagogia | 82,8 |
| Erizaintza | 81,1 |
| Psikologia | 79,8 |
| Gizarte-lana | 79,4 |
| Ingeles ikasketak | 76,1 |
| Hizkuntza modernoak eta kudeaketa | 75,2 |
| Turismoa | 75,2 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

**10. Irudia.** Gizonen % 75etik gorako matrikulazioa duten graduak Bizkaian 2018/19

| | % GIZONAK |
|---|---|
| Itsas Ing. | 90,1 |
| Ing. IInformatika | 88,9 |
| Ing. Mekanikoa | 84,6 |
| Kudeaketa eta Informazio Sistemen Ingeniaritza Informatikoa | 83,4 |
| Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ing. | 82,4 |
| Ing. Elektrikoa | 77,6 |
| Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ing. | 77,1 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Goi-mailako Lanbide Heziketari dagokionez, aztertutako aldi osoan, matrikulatutako pertsonen bolumenak gora egin du oro har, nahiz eta gizonen kopurua nabarmen handiagoa izan aldi osoan.

**11. Irudia.** Goi-mailako Lanbide-Heziketako ikasleen bilakaera Bizkaian, sexuaren arabera 2008-2019

| | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|
| 2013-2014 | 2.091 | 1.642 |
| 2014-2015 | 2.176 | 1.732 |
| 2015-2016 | 2.143 | 1.749 |
| 2016-2017 | 2.347 | 1.742 |
| 2017-2018 | 2.404 | 1.701 |
| 2018-2019 | 2.344 | 1.695 |

*Iturria: Bilboko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Panoramika 2020*

Bizkaiko emakumeek, historikoki, presentzia txikia izan dute Erdi Mailako Lanbide Heziketan: % 34 (2.333 emakume) 2018/2019 ikasturtean. Prestakuntza-arloak aztertuta, ikasketa maskulinizatu batzuk (Fabrikazio Mekanikoa % 96 gizonak, Informatika % 93 gizonak) eta beste feminizatu batzuk (irudi pertsonala % 87 emakumeak, Osasuna % 74 emakumeak) daudela ikus daiteke.

Educación infantil con casi el 89% de mujeres, y Pedagogía con el 83%. Mientras en otros grados, se aprecia una presencia mayoritaria de hombres, siendo la Ingeniería marina e Informática los grados con mayor porcentaje de hombres, alrededor del 90%.

**Figura 9.** Grados con más de un 75% de mujeres matriculadas Bizkaia 2018/19

| | % MUJERES |
|---|---|
| Educación infantil | 88,7 |
| Pedagogía | 82,8 |
| Enfermería | 81,1 |
| Psicología | 79,8 |
| Trabajo Social | 79,4 |
| Estudios Ingleses | 76,1 |
| Lenguas Modernas y Gestión | 75,2 |
| Turismo | 75,2 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

**Figura 10.** Grados con más de un 75% de hombres matriculadas Bizkaia 2018/19

| | % HOMBRES |
|---|---|
| Ing. Marina | 90,1 |
| Ing. En Informática | 88,9 |
| Ing. Mecánica | 84,6 |
| Ing. Informática de Gestión y Sistemas de Información | 83,4 |
| Ing. Electrónica Industrial y Automática | 82,4 |
| Ing. Eléctrica | 77,6 |
| Ing. Electrónica Industrial y Automática | 77,1 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

En cuanto a la Formación Profesional de grado superior, en todo el periodo analizado, el volumen de personas matriculadas ha ido creciendo de forma general, aunque el número de hombres es considerablemente mayor durante todo el periodo.

**Figura 11.** Evolución del alumnado de formación profesional de grado superior en Bizkaia por sexo 2008-2019

| | HOMBRES | MUJERES |
|---|---|---|
| 2013-2014 | 2.091 | 1.642 |
| 2014 2015 | 2.176 | 1.732 |
| 2015-2016 | 2.143 | 1.749 |
| 2016-2017 | 2.347 | 1.742 |
| 2017-2018 | 2.404 | 1.701 |
| 2018-2019 | 2.344 | 1.695 |

*Fuente: Panorámica de la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bilbao 2020*

Las jóvenes de Bizkaia mantienen históricamente una presencia baja en la Formación Profesional de Grado Medio, que se ha concretado en un 34% (2.333 mujeres) para el curso 2018/2019. Analizando las diversas familias de formación, se observa la existencia de algunos estudios masculinizados (Fabricación Mecánica 96% hombres, Informática 93% hombres…) y de otros feminizados (imagen personal 87% mujeres, Sanidad 74% mujeres…).

**12. Irudia.** Erdi-mailako LHko ikasleak lanbide-arloaren eta sexuaren arabera Bizkaia 2018/19 ikasturtea (%)

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| Nekazaritza | 79 | %85 | %15 |
| Hezikota fisikoa | 43 | %77 | %23 |
| Itsas arrantza | 88 | %98 | %2 |
| Administrazioa eta kudeaketa | 614 | %41 | %59 |
| Arte grafikoak | 103 | %69 | %31 |
| Merkataritza eta marketina | 175 | %52 | %48 |
| Edificación y obra civil | 45 | %76 | %24 |
| Eraikuntza eta obra zibila | 713 | %96 | %4 |
| Frabrikazioa mekanikoa | 921 | %96 | %4 |
| Ostalantza eta turismoa | 463 | %68 | %32 |
| Irudi pertsonala | 473 | %13 | %87 |
| Elikagaien industriak | 86 | %43 | %57 |
| Informatika / Komunikazioak | 521 | %93 | %7 |
| Zura, altzaria eta kortxoa | 125 | %87 | %13 |
| Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak | 677 | %96 | %4 |
| Instalazioa eta mantentze lanak | 334 | %97 | %3 |
| Kimika | 45 | %47 | %53 |
| Osasungintza | 989 | %26 | %74 |
| Gizarte eta kultura- zerbitzuak | 360 | %21 | %79 |
| Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza | 17 | %18 | %82 |
| GUZTIRA | 6.871 | 4.538 | 2.333 |

